

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko elementuak dira enpresa bati ahalbidetzen diotenak bere balio-proposameneko eskaintza garatzen, bezeroengana iristen, haiekin harremanak izaten eta diru-sarrerak sortzen. Eta honela banatzen dira: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak.

Lehenengoa, baliabide fisikoak: aparkalekuak, sentsoreak, VIA T antzeko txipa, lurreko pintxoak, lurreko metala, mugikorrak, aplikazioa kontrolatzeko materiala (ordenagailua), lokala...

Bigarrenik, baliabide intelektualak eta giza baliabideak elkarrekin jarri beharko genituzke eta ondoreno hauek azpimarratu beharko lirateke: taldekideon sormena, dauzkangun informatikako eta webgunek diseinatzeko ezagutzak eta denon artean aurrera aterako ditugu salmentetarako eta antolaketarako abileziak.

Hirugarrenik, finantza-baliabideak; beste ataletan (irabazi iturrietan, funtsezko baliabideetan, kostuen egitura...) ondo adierazita dagoen bezela, hainbat tokietatik lortuko ditugu. Udaletxearekin bat egitea gustatuko litzaiguke, jakinda beraiek eramango dutela irabazien zati handiena, horrez gain OTArekin ere bat egin beharko genuke eta GoogleMapsekin kooperazio bat egitea ere komenigarria izango litzateke. Honela, kostuak guretzat txikiagoak izango dira; azken finean, bi enpresek bat egitean biak irabazten aterako direlako. Baina argi utzi behar da gure finantza-baliabide nagusia udaletxea izango dela.